

ZER

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

210n. zenbakia
iraila 1996



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



DONEMILIANE GOIKOA

- ANTXIÑAKO KRISTIÑAU EUSKALDUNEN LEKUA
- GURE PARROKI ASKOREN BURUA: ABADEAK, LEKAIDEAK
- EUSKERAZ LENENGO ESALDIAK IDATZI ZIRAN TOKIA
- GURE TXANGO ARA: 1996-09-21: EUSKERAZAINTZA

EUSKALERRIAN EUSKERAZ

E U S K E R R I A Z A L E A K
1996-97 IKASTURTEA

OGEITABEDERATZIGARRENA BIZKAIERAZ

IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

Egunak: ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN EDO ASTEARTE ETA EGUENETAN

Orduak: GOIZ, ARRATSALDE ETA GABETAN

Ordaña: 16.000 PEZETA

Izena emoteko-tokia: EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEGI, 14-2 - URRUTIZKIÑA 423 53 22
BILBAO

29° CURSO DE EUSKERA BIZKAINO

3 NIVELES Y CONVERSACION

Días: LUNES, MIÉRCOLES Y VIERNES, O MARTES Y JUEVES

Horas: MAÑANA, TARDE Y NOCHE

Curso completo: 16.000 PESETAS

Inscripciones: EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEGI, 14-2 - TELEFONO 423 53 22
BILBAO

LAGUNTZAILEA

COLABORA



BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa

AGUR UDAKO ZORAMENA

OPOR-ALDIA TA GASTUAK

Naiz eta krisialdia gogorra izan eta geroago eta geiago igarri eguneroko ekintzetan, udeagaz batera dirutzak doaz, joan eta ez datozanak, ain zizen, gastuak diralako.

Udea da oraindik oporren sasoirik nagusia.

Langile asko dira oporraldia zatitu egiten dabena Aste Santuko eta Gabonetako egun batzuk arturik, baina egunik geienak udarako izten dabez. Eroski-k egindako ikerketa baten ondorioz udea gastu sasoi bezela agertzen da: Bidaia, jaiak, etxetik kanpoko bazkari-afaria, ...

Adierazgarria da kultura arloko ekintzetan gastuak ez direla orrenbeste igoten: bearbada udan futbolik ez dalako egoten izango da, badirudi orixe dala eta, aspaldion kultura-er ezaugarri onena (zezenketak oso urrutik ez dagozan arren).

Orretaz ez badozu ulertzen beste munduren baten bizi zarala emoten dau..

KRISI-ALDIA

Bai, krisialdia igarri egiten da. Orain urte batzuk udarrietan (Gaminitz, Gorkiz, Bakio, ...) ez egoan, jendearen jendez, gabeko amarrak-amaiketan taberna baten ezer lasai artzetik. Gaur, oster, ordu orretan tabernarik geienak atek sarratu egiten dabez bezeroen faltan.

Badirudi nagusitzen doala erderaz esaten dabena iru "P"-etako uda: ondartz, ibilaldia eta pipak (playa-paseo-pipas).

Antzinako andikien sasoi joan zan, baina andiki barriak agertu dira, udea an edo emen igaro dabela arrotasunez esan aal izeteko kristorenak eta bi jasan bear dabezanak.

Azken onen artean kasu bitxiak aurkitu daitezke: uda erromantikoa egiten dabena kandelen argitan (Iberdrolak ez dau parkatzen), tabernan aora andi daukienak eta gero etxean aora zer eroanik ez, uda igaroten dabena errira doazenerako jantzirik dotore eta ederrenak erosten dabezanak gero bearrezko gauzarako dirurik ez izan arren, erri orreetako pasialekuak Bilboko Gran Via balira bezela (guk jantzi orreei domeketako erropak deitzen geuntsen leen); azken batean agirian itxura utsa besterik ez eta praketan faltrikera utsa.

NEURRIAK

Ez dakit zergaitik (edo badakit baina obeto ez esan) orrelako erritan bizi garenok oizkoan ez gara ondo konpondu udatarrak, tabernari, dendari edo beste negozioren baten jabeak izan ezik.

Baina tabernariak ere geroago eta sarriago ikusten dabez taberna aurreko maaitxoetan kafe bategaz arratsalde erdia emoten dabena bezeroak (ez ete jake ozten orrenbeste denporretan kafe?), eta dendariak ere sagarrak kiloka saldu bearrean arrautzak bezela saltzen dabez, zenbatuta, pernila ere gramuka barik xerraka neurtuta (ori pernila eroaten dauanak), *hadak zu, udako heroagaz usteldu ere egin leitezke eta.*

Nekazarietat euria egiten dauan egunak ere arriskutsuak izaten dira, eta ez uoldea etorri leitekela edo solokoak ez direlako eltzen, karakolen edo marraskiloen atxakiaz batek baiño geiagok boltsea barazkiz betetzen daualako baino.

Ez da denpora askorik alako arropakariak usatzeko nekazari batek onako kartel au ipini ebal: *"Peligro: Caracoles enveuenados"*.

Baina ala eta guztiz euria egin osteko egunean solora joaten zanean bereala igartzen eban piper, tomate eta antzekoen falta. Piperrik txikiak (agin erdirako ere ez dabena balio), tomaterik eldubakoenak, lau orridun letxugak izan arren, danak dira baliadunak (marraskilo batzaileentzat)".

Eta zer esan "txomingeroei" (domingueros) buruz? Zergaitik ete da jatordua egiteko orduan zelai bat bilatzerakoan belardirik onena aukeratzea? Eta bertatik urtetzeko esan ezker, bueno!, edorzer esateko gauza dira, an egotea eskubide konstituzionala dala eta.

LENGOAK ETA OLAINGOAK

Dana dala erriotan beti danik bereiztu doguz betiko udatarrak, antzinako andikiak eta andiki barriak (askotan zorri il-piztuak).

Leenagokoak onartuagoak izaten dira, eta onen artean aurkitzen dira antzina euren etxe ederrak egin ebezanak, gaur egun askotan erdi jausita dagozan arren, zein diru kontuak aldatu egin diralako zein itzitasunagaitik, ...

Ta erritartzat daukie euren burua, naiz eta erritarrok bertakotzat artu ez.

Besteak sarritan ez dauke inolako loturarik, ez erriagaz ez eta erritarrakaz, gorago aipatutako "arremonak" izan ezik. Eurentzat bertokoak bigarren mailako biztanleak garala esan leitezke.

Badakizu irakurle, batzuk Leioako edo Deustuko unibertsitatean ikasitakoak dira eta besteok "Basarteko"-an. Baina, udatarr andiki ori, jakin egizu erritarrok, danok pasatu garala Basarteko unibertsitateetik eta gaur egun ainbat beste bietariko bataren batetik ere bai, eta zuek, asko eta asko iruretatik bat ere ez dozue zapaldu. Oraindino ainbat dagoz apaltasunaren asignatura ez dabena gaiditu.

Enrike Itxasalde

EUSKERA TA IBER'tarren IZKUNTZA

ORAIN ARTEAN ENTZUNA TA IKASIA

Aspaldion entzun doguna izan da Iberia Erdi-Ugarte osoan ez dala iñoz euskera berba egin, eta lentxuago aldelari asko eukazan "Eusko-Iberotarra" eritxon eritx-bidea aspalditik alboratua zala entzuten genduan.

Ori orrelan izanik, Erdi-Ugarte osoan aurkitzen izan doguzan eta euskerazkoak diran toki-izenak nondik ara eldu ete diran zalantzan ikusten izan dogu geure burua. Esaterako Extremadura'n "Azuaga". Madrid'en bertan Txorietxe. Andaluzia'n orain Elvira deritxon eta len Iriberrri eritxon erria, Teruel'en Landeta.

Izen batzuren edestia ba-dakigu. esaterako Segobian dagoan "Mingorria" Eskorial'en lanean ibilli ziran argin euskaldunak ipiñia dana. Baiña beste askotan oso arrituta geratzen gara: Izen au nondik nora etorri ete da lurralde onetara, esaterako Galizia'n dagoan "Baiona" erria. Eta olako asko eta asko.

GAURKO JAKITUN BATEN ERITXIA

Zalantza orretan burutik eginda nenbillala, arrituta itzi nau "Mundo" egunkarian, aurtengo urtcerrillaren 28'an agertu dan idaz-lan batek: "Edestiko aurkipena **EUSKERA = IBERO**. Edestizale batek ibertarren eta tartesotarren idazkiak itzultzea lortu eta euskerearen antza daukela baieztatu dau".

Egia esan "ibero" izenak berak be ba-dauko euskal-itzaren antza: "Iber" euskeraz aranari esaten jakolako, baiña zein ete da or egin dan baiezketa orren oiñarria?

Idaz-lan au Fernando Mugica'k idatzia da. Billatzailleak ez dakiala euskerarik. Balladolid'en jaihoa dala diño, baiña bere ume-denporea Bilbao'n igaro ebala eta ume euskaldunakaz izan ebazala artu-emonak eta orrelan berba askoren adierazpena eskeratu ebala. Jorge Alonso Garcia da ori jazo jakon billatzaillea.

Baiña sartu gaitezcan idaz-lan onen laburpen bat egitera.

AURKIPENA

"Eltxe'ko Anderea" k euskeraz berba egiten ekian. Ori ez da txantxetako gauzea, erromarrak etorri arte gure artean izan diran jazokizun asko argitzeko bidea baiño.

Jorge Alonso billatzailleari euskereak bidea argitu dautso iber'tarren eta Tartesitarren idazkiak ulertzeko. Orrelan, asi Rodano ibaian eta Portugal'eko Algrabe'ra arte aurkitu diran idazkiak ulertzeko bide bat aurkitu dau: euskerea.

Urteetako lanaren ondorena izan da ori, baiña orain ba-



daukagu bide bat eundak be-launaldien oitura, erlejiño, gizarte ta elertira sartzeko. Kristo baiño sei milla urte lenagotik asi eta erromatarren aldira arte sartzen gaitu aurkipen onek.

Ibertarren erdi-ugarte an bizi izan diran biztanleak, millak urteetan, euskerearen antz-antzeko

izkuntzak erabili dabez alkar ulertzeko: Abedearen ikurrak ez dira bardiñak, baiña ikur orrerik arrian, burdin-orian, berunean edo beste gairen baten irarritu, or dagoz urteen joana igaroten eta ulertzaille bateri itxaroten.


Jakintza orrek erromatarrek etorri arte iraun eban. Oneik etorri ziranean, jakintza guzti orreik oso-osoa alboratu ebezan. Izkuntza be bai. Ez zan beste izkuntzarik geratu auñamendi inguruko mendietan erabilten ziranak baiño. Inguru orretan iraun eban gaur euskera deritxogun izkuntzak. Beste guztiak latera ikasi eban. Orregaitik iñok ezin ulertu izan dauz orain-tsuago agertu diran idazkiak. Izkien ikurrak bai ulertu dabez, obeto esatekko, dagokiezan gaurko izkuntzetako ikurrak ipiñi ango ikurren ordez, baiña ortik sartzen diran berbai antzik emon be ez.

ULERTZEN

Ona emen Labastida'n aurkitutako idazki bat: "**Burutergarsaldulakogiar**"

Gainera, ez zan aitzu-bearreko gauzea, idazkia betik gura eta eskumatik ezkerreara erakurri bear zala. Orretaz konturatu zan izki-ikurrak urregorik urregora aldatu ebazan Manuel Gomez Moreno zanak. Lenengo oinkada on bat emonda egoan. Ori lortzeko Erromatarren txanpon batzutan lateraz eta iber-eraz egozan idazkiak lagundu eutsoen.

Konturatu ziran billatzaille batzuk or agertzen ziran itzatiak ba-eukela euskerearen antza. Ori entzun genduan gure ikasle denporan, berrogei urte baiño geiago dirala. Baiña Jorge Alonso Garcia izan da orretan aurrera urratsak emon dauzana, euskera apurren bat ekialako. "Itzulpenak egiteko lan astitsua egiten asi nintzan, -diño berak- eta argitasuna berez-berez etorri jatan: Geroago ta geiago ziran ulertu al izan nebazan idazkiñak... orain ba-dira 200 baiño geiago itzuli al izan dodazanak eta milla itz dituan iztegi bat osotu al izan dot. Orrek zalantza barik



LARRAK ETA BEORRAK.


IBERO	EUSKERA	CASTELLANO
Su	Su	<i>Fuego</i>
Sule	Suleze	<i>Infierno</i>
Tagis	Tegi	<i>Depósito/lugar</i>
Tar	Tar	<i>Procedente</i>
Bericar	Berekari	<i>Amigo animales</i>
Tira	Tira	<i>Derribar</i>
Tunt	Tunt	<i>Oscuro</i>
Ur	Ur	<i>Agua</i>
Usai	Usai	<i>Perfume</i>
Nere	Nere	<i>Mío</i>
Sen	Zen	<i>Difunto</i>
Basarte	Basarte	<i>En los bosques</i>
Binik Bin	Beinik bein	<i>Por lo menos</i>
Naba	Naba	<i>Valle</i>
Be	Be	<i>Abajo</i>
Sesin	Zezin	<i>Toro</i>
Lakun	Lakoak	<i>En la creencia</i>
Skr	Sakar	<i>Escombro</i>

agertu daust euskerearen eta izkuntza orrean artean senidetasan aundi bat dagoala, gastelerearen eta lateraren artean dagoan senidetasa baino askoz aundiagoa. Lenengo aurkitu nebazan itz bardiñak oneik izan ziran: "su/fuego", "ur/agua", "basarte/en medio del bosque"... baiña euskeraz ugari erabilten diran izki batzuk sekula be ez ziran agertzen, esaterako "zeta"... eta beste aldakuntza batzuk daukezela, esaterako "berikar/berekari/amigo de los animales". Izkuntza orreitan abots bakarti edo bokalak galtzen dirala. Esaterako "binik bin" euskerazko "beinik bein" da eta "ildubeles/illun beltz edo noche cerrada". Gero esaldi luzeagoetara sartzen ausartu nintzan eta olerkiz beteriko esaldiak aurkitu nebazan, soloetako lanen zeazketak, lege-olak ondo zeaztuta, elerti-esaldiak, illeta-agurrak, beste mundu bateri begira diran esaldiak. Ikusi neban arein jakintzak aberastasun aundia eukala.

ITZULPENAK

Artu barriro eta osotu daigun lengo esaldia:

"Buritengarsaldulakogiarsaldulakogiae"



ALCOY-ALICANTE'n AGERTUTAKO BERUN-AZAL BATEN AURPEGI BAT: SALEROSLEENTZAT AGINDUAK.

"Burlots-decoro, comportamiento"; "-tara/forma de actuación"; "agari/público"; "saldu/vender"; "ula/la manera"; "ko/de"; "giar/carne, músculo". Orreian Labastida'ko esaldi orrek, itzez itz eta aldakuntza txiki batzuk kontuan dirala, euskerazko itzak dauz guztiak. Eta auxe diño Jorge alonso'k: Nik eskintzen dodan itzulpena auxe da: "Comportamiento adecuado al mercado, vender carne con músculos, como si se vendiera carne magra". Ori azokarako lege bat da eta uri aretako salerosleentzat balio dau eta gero lege orretan agertzen dira agindu oneik: salenurriak ez goratzeko guzurrez, uzta-batzean saltsak eta ardaia batera ez artzeko, zarata aundirik eta azpergarririk ez egiteko eta agindu ori beteten ez dabena zein neurritako zigorra ezarriko jaken.

JAKINTZA

Sarritan agertzen da aldi aretako pentsaera agertzen dauan leiza edo inperua, ildakoak bide luze bat egin eta suzko ibai bat igaro bear dabela...

Ortik ateraten dau billatzaille onek, lenago latera ikasten zan antzera aurrerantzean euskerea ikasi bearko dala, erromatarrak baino aurrerago inguru onetan bizi izan ziran aurretikoen jakintza ulertu nai ba'dogu.

TOKI-IZENAK

Eta idaz-lan onen azkenean auxe da billatzaille oneik diñoana: "Benetan arrigarria da Andalusia'n eta erdi-ugartearen sortaldean diran toki-izen askok adieraspn barri bat agertzen dabela: Euskera garbi-garbizko izenak zirudien.

Olako berogei ta amar izen gogoratu neikez.

Orain ba-dakigu ez dirala izen euskaldunak, ibertarren edo tartesitarren izkuntzazkoak baino eta badakigu izkuntz orrean eta euskeraren artean dagoan antzak eroan gaituala euskal-izenak zirala uste izatera. Ona emen izen batzuk: "Ecentegi/lugar de toros", "nabata/puerta de la llanura", Madrid'eko zazpi menditxuntxurren artean lenegoa "aurre/el primero" da.

Eta, amaitzeko, beste itaun bat: Zergaitik artu ez euskeraz idazteko olako toki baten agertzen diran ikurrak? Zergaitik ez daukagu euskaldunok geure izkuntza idazteko ikurrik, ibertarrak eta tartesitarrak euki ba'eben? Eta beste itaun asko egin leikez!

OLAZAR'tar Martin'ek

ARGIUNEAK

AITA SANTUA EUSKERAZ



– Maiatzaren 14'ean (1996) DEIA'k dakar: Atzo, astelena, euskeraz egin zien euskaldun erromeseri.

– Zertarako erromeser?

– Ama Kandida Zipitria Badiola eta Maria Antonia Bandr s Elosegui, bata Andoingoa eta bestea Tolosarra, aldarari ipiñi zituan Aita Santuak domekan. Eta artara joanak ziran.

– Eta, zer berba egin eban Aita Santuak?

– Era onetara mintzatu zan:

"Euskaldun peregrino maiteak: ongi etorriak Erromara, Eleiza guztiko Aitaren etxera. Atzo bi emakume, Kandida Marfa de Jesus eta Marfa Antonia Bandr s, Jesusen Alaben Kongregaziokoak, altxatu ditugu, zorionsuen aldarara. Zuek pozik zaudete. Ni ere pozik nago. Agur".

"GERNIKA" LAUKIA BILBAORA



– E.A.J.ak eskari au egin dau: Picasso'ren lauki famatua, "Gernika", Bilbao'ra ekartzea.

– Nora?

– Guggenheim museora, betirako ez ba'da be. Eta, zer erantzun dabe Madril'en?

– Reina Sofia Petronatoa ixilik dago; baña, berbetan asi dana Picasso'ren alaba Maya da.

Eta, zer esan dau?

– Ori, astakeri bat izango litzakela.

– Bera be naiko astoa dala dirudi.

ZAZPI PRAILLE ERAILLAK

– Nork egin dau astakeri ori?

Nere lagun batek esaten dauenez, ori ez da astakeria; ori gizonkeria da.

– Nork egin dau gizonkeri ori?

– GIA, Argelia'ko terrorista taldeak.

– Zergaitik?

– Burrukan

sartu nai izan ez debelako.

– Eta, zer praille-jenero dira orreik?

– Ziortza'ko Aita Patxiren senideak; baña, GIA'k Prantzia'ri botatzen dautso kulpa guztia, talde oien aspaldiko buruzagia askatzen ez dabelako.

– Orretan be, oituta gagoz.



FAUSTINO MUTIKOA

– Ardo markaren bat al da Faustino?

– Badagoz Faustino ardo-markak be; baña, au mutiko alai bat zan.

– Zer dau bereizirik?

– Futbola gustatzen jakon, igari be bai, mendigoizalea zan, zine ederren zalea...

Orrelako mutiko asko dagoz bastarretan.

– On guztiei bai esatea zan bere elburua.

Ez dago txarto.

– Jainkoa maite izan, Kristo eta bere Amarekin berba egin, bearrean dagoanari lagundu...

– Ederra benetan! Olango mutiko asko bear dira mundua aurrera eramateko.

– Faustino'ri buruzko liburusaila atarateko dagoz. (Vida Nueva. 1-6-1996).



BIZKAIA LABE AUNDIRIK GABE

– Aizkeneko Labe Aundia (Altos Hornos), A-2 "Marfa Angeles", gaur bota dabe: 2-VII-1996, Sestao'n.

– Baña, asieran iru ziran Labe Aundiak...

Besteak Baracaldo'n asten ziran eta irugarrenakin Sestao'n amaitu. Onela esaten eban leengo kanta zaarrak: "los Hornos de Baracaldo, que alumbran todo Bilbao".

– Noiz izan eben asiera?
 – 1902-IV-29'an emon eutsen asiera 6.139 langillekin.
 Asko dozak orreik.
 – Gerora 13.000 be euki dabez. Neure denboretan, ordea, amar milla inguru.
 – Zeure denboretan? Angoa zara, ala?
 – Labe aundi baten aurrean bizi nintzan, Karmel'go kalean.
 – Zer inñusentekeri dok ori? Nik uste neban Bartolo Arropain'go lekitarra zala.
 – Bartolo Arropain'go nere amamaren aita zan eta Arranegi kalean, lenengo zenbakian bizi zan nere aitaren ama.
 – Eta, zer?
 – Neure ama, lazkaotar giputxa, amalau urterekin umezurtz gelditu zan eta bere izekok Barakaldo'ra eroan eban.
 – Zertara?
 – Osabak eta izekok eukien taberna, Labe Aundi baten aurrean, eta an lan egitera. Mostradore aretan ezagutu eban, bere senarra izango zan lekeitiarra itxas-gizon kapitana. Eta, etxe aretan bertan, bigarren solairuan, gelditu bizi izaten.

Baña, nola demontre zara lekittarra?

– Ama aurdun gelditu zanean, Lekeitio'ra jo eban, bere senarraren etxera, aurra izateko, Arranegi kaleko lenengo zenbakian. An jaio eta an bataiatu. Eta, ostera labe Aundiaren aurrera, angu keatsakin birikak zikintzera.

– An bizi al ziñan?

– Lau urte bete arteko guztian an edukitzen ninduen, balcoitxo batean, tximiñotxo baten antzera, Labe Aundiari begira, baita aurreko tarte bateri be.

– Zer tarte?

Lantegiak eukan, geure etxeparetik aurrera ibaiaraiño kale baten antzeko tartea. Tarte aretatik ikusten nebazan, andik pasatzean itxas-ontzi beladunak eta baporak. Baita be, tren txiki batzuk, bagoneta txikiekin, bakoitzean pastel antzeko tarta bat guri-guria.

– Zer ziran orreik?

Burnia atarata gero labean gelditzen ziran ondakiñak, ikatz eta burni-meatzenak.

– Zer egiten eben "tarta" oiekaz?

Nik pasatzen bakarrik ikusten nebazan; baña, uste dot gabarretan itsasora botaten ebezela.

– Eta zuen Lazkao'ko izeko, zertan joan zan Barakaldo'ra?

– Labe Aundietan lan-postu asko sortu ziran; ortik jaio zan joera aundia bai Gipuzkoa'ko erri txikietatik eta baita Bizkaia'koetatik ere. Kastilla'tik zer esanik ez. Enkarterria erdaldunez bete zan, bai labeak zirala, bai burni-meatzak zirela... Ortik sortu zitzaion Sabiñ'eri biotzeko miña: "Ii naiago det, ikusi baño, aberriaren amaia"...

– Labe Aundietara joan al ziran zure senide oiek?

Amaren izeko alpargeta-egille batekin zegoen ezkontuta, Nikolas Areso, eta artara joan ziran: alpargetak egin eta alpargetak saldu; gero, lantegi sarreran etxetxo bat erosi eta bertan taberna, sagardotegia, kafetegia, janari eta tabakodenda ipiñi.

– Ez ziran gauza gutxi.

Eta, goizeko seiretatik, lenengo taldean sartzen ziran langillei kopatxo bat pattarra saltzeko, an zegoen Lazkao'tik

etorritako amabost urteko neska begi-urdirin panpoxa. Baukezen idaztiño edo libretatxo batzuek be (irureun edo), eurotan apuntatzeko ordaintzeke eramaten ebezan janariak; bai ba, jornalak amabostero kobratzen ziran, baña, aldi orretan be, jan egin bear.

Ez zan xistema txarra.

– Andik eta, ezaupide asko egin ebazan lazkaotar gazteak. Bezeroen artean bazan bat, Chomin de Ceanuri izenagaz; emaztea etortzen jakon janariak eramatera eta senarra goizoro seiretan pattarrakopatxua artzera. Goiz batean oñetakoak aldatuta agertu zan tabernan eta neskak: –"Que, Chomin, te has levantado dormido ~o qu ? Zapato de la pie mio y zapato de la pie de la padre mio" erantzun eutsen zeanuritarrak. –Bai, baña, emen danak erdaldunak dira eta zeu be, giputxa. –Eta, zer? Nik euskeraz erderaz baño obeto dakit. Emendik aurrera euskeraz egingo degu eta obeto entendituko gera... Alan egin eben.

– Erderak ittota eukan euskaldunen berbetea.

– Baña, euskaldunak be, alkartzen ziran; orregatitik agertu zan egun batez lekeitiar kapitana beure lagunekin, taberna euskaldun baten billa.

– Eta, beti bizi izan al ziñan an, labe aurrean?

– Geroztik Portu kalera aldatu giñan; labe aundietatik apur bat urrunago. Labe aiek baño amar urte gazteago nintzan (aiek 1902'an eta nik 1912'an); bañan ni baño lenago gastau dira.

Zein zenbakian bizi ziñan?

– Seigarrenean; an amaitzen zan kalea. Burni-meatzak ekartzen eban trentxo batek, itxitzen eutsen bidea kaleari. Andik errian-gora joateko, eskolara eta abarretara, El Puento de las Brujas zubitxoa igaro bear.

– Burni-meatzak aurretik eta labeak atzetik.

– Burni-meatzik geienak Europa'n zear eraman ebezan, Ingalaterra'tik asita. Millika tonelada asko, Enkarteriari lapurtutakoak.

– Meatzak, Labe Aundiak, Euskalduna astilleroa... Bilbao'ko ibaia ez da sekulan berdiña izango.

KAKA-PLASTA SARIA

– Aurtengo berri-aldian euskaldun batzuek Sariak atara dabez euskaltzaleak saritzeko, sari politak eta ederrak.

– Eta KAKA-PLASTA SARIA zer da?

– Ba, orixe: adarra jotzeko saria eta euskaltzale batzuei txistua aurpegira botateko.

Zergaitik KAKA-PLASTA SARIA euskaltzale idazleei? Euskeraren aurka joko dabe, ala?

– Leengo Euskera zaar ederrean ari diralako, Batuaren iraultzarik onartu gabe; ezta iraultzaren Simbolo Plaztikoa ere.



ALBISTEAK

- Zer da Iraultzaren Simbolo Plastikoa?
- H izkia da Simbolo Plastiko ori. Eta onartu bearra dago. nai ta nai ez; bestela, madarikazio guztiak, kaka-plasta guztiak gañian dituzu. Ez zera Euskera Bei emankorraren titietara urbilduko...
- Neri ez zait ain Sari txarra iruditzen.
- Kakatan plasta gelditzea ez zaizu ain txarra iruditzen; txarrago zer da?
- 011o-zirin Saria.
- Eta, zeñientzako da Sari ori?
- Batua eta Simbolo Plastikoa sudurretatik sartzen diguentzako.
- Arraioa! Orixen bai ez nuela pentsatuko. Baña, zergaitik da txarrago?
- Kaka-plasta batean bizia sortzen da ugari eta gañera, soloetan, perretxiko ederrak.
- Eta. ollo-ziriñetan?
- Belarra bera be erre egiten dau ollo-ziriñak.
- Argitu eidazu parabola ori, ipuin ori?
- Euskera zaarrak, 50 amar urteetan Euskaltzaindiaren arautean egiten zana, erriaren Euskera, orrek frutu iraunkorak ematen dauz, erria berbera berbetan ipiñiaz.
- Eta. ollo-ziriñak?
- Batua sortzen dan tokietan, umeak eta gurasoek ez dute alkar entzuten eta aditzen eta orduan erderara jotzen dabe guztiak. Bermio'n zer gertatu da?
- Bai, zer gertatu da Bemio'n?
- Leen erri osoa euskeraz; orain. Batua 25 urtean irakutsi ondoren, eunetik 75'ek erderaz egiten dabiela. Batuari ezker.
- Arazo oneri buruz irakurri dot udaberri onetan DEIA

aldizkarian Nicolas de saracho jaunak idaztitako "EI Futuro del Euskera" idaztitxo bat. Batua indarrez sartu dabienean esaten dabe, ori gertatu dala zaarrak "alfabetizatu" barik daudelako. analfabeotak ei gara.

Euskerarik ez dakigula? Eurak sortu al eben Euskera orain millaka urte?

- Saracho'k onela diñotse: "Gracias a personas no alfabetizadas nos ha llegado el idioma hasta nuestros días y su conservación actual, depende de ellas en un 90%...".

- Bai. euren be, Irlanda'n gertaturikoa gertatuko da: Guztiek ikasi dabe galeiko izkera eskoletan, baña ingeleraz egiten dabe kaleetan.

- Oba dau Euskerak KAKA-PLASTA SARIA, OLLO-ZIRIÑENA baño.

- Baña, gure dirutxuak, gure pratikeratik ataratako dirutxuak, 011o-ziriñentzako doiaz.

- Quintiliano Erromatar Gramatikariak esaten ebana dakorkit burura: "Aliud est gramatice loqui, aliud latine loqui": Gauza bat da Batuaren legeaz itz egiten eta beste bat Euskeraz itz egitea.



BARTOLO ARROPAINGO

IPUIN-SARIKETA 1996 (BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)

Urte guztietan lez, aurten be Euskerazaleak Alkarteak Ipuin-Sariketa eratzen dau, baiña aurten sariketa au Aita Santi Onaindia'ren omenez izango da eta ipuiñak edo idaz-lanak bere giroan izatea nai genduke. Ona euren urte guztietako egitaraua:

- Ipuñak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatzia izan bearko dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.

- Ipuñak asmatuakoak edo errian batuak izango dira. ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.

Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER'en argitaratuko dira.

Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.

- Azillaren azkenerako EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren etxean (Bilbao'ko Colon de Larreategi, 14, 2' eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta ZER'en agertuko da, urterillan, baita DEIA Egunkarian be al bait lasterren.

- Sariak lau izango dira:

1° 40.000 pezeta.

2° 30.000 pezeta.

3° 20.000 pezeta.

4° 10.000 pezeta.

- Ipuñak izen ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.

EUSKERAZALEAK

OBETU DAGIGUN GURE EUSKERA (VII)

GALDEGAIA-1

“Zuzen idazteko, euskeraz ondo jakin eta, ganera, euskal-sena bear da eta auxe dago urri egungo idazle edo idazletzakoen artean”, irakurri dot oraintsu ZER aldizkari onetan bertan (orrilla/maiatza, 1996, 13 orri.).

Oso ederto esana! Orixe da bene-benetan osagarria zauriaren erdi-erdian ezartea! Euskera jakitea eta ondo jakitea ez dala naikoa euskeraz idazteko. Euskal sena bear dala. Nik **euskeratasuna** edo **euskaltasuna** be esango neuke. Edo beste berbabide batez: euskal “belarria”, maixu aundi batek -Manuel Lekuona jaunak- esaten ebanez. Gogoan daukat oraindiño euskeraz zuzen eta jator itz egiteko eta idazteko bein baiño geiagotan emoten euskun jardun-bidea: “belarriari galdetu”, iñoskun berak. Idaztarau au euskeraz umetan ikasi eta erabilli genduanoi emoten euskun batez be. Euskera beranduan ikasi dabenak edo euskaldun barriak ez ei dauke asikeran “belarria” euskerara egiña, geroago ekiñaren ekiñaz zerbait edo zerbait baiño geiago lortu arren be. Txiki-txikitan euskera ikasi eta egin dabenak, ostera, bai. Maixu bardinbako aren irakaste baliotsu eta garrantzitsu au ez jat niri egundo be aaztu, eta euskeraz zerbait idatzi izan dodanean, gogo-gogoan izan dot, eta aolku onen argitan idazten aalegindu izan naz, zuzen idazte ori beti-beti lortu ez badot be.

Ez. Euskera ez da erdera, ez da gaztelera edo beste erdera-mota bat. Euskera euskera da. Eta euskeraz idazten dogunean, euskeraz idazten aalegindu bear genduke. Ez da tentelkeria ori esatea, gure egunotan tamalez euskerazko berbak erabilli arren, geienetan erderaz berba egiten dogu eta.

Euskaldun-euskaldun batek ez dau au esango: “Egingo dogu **euskeraz**”, “**euskeraz** egingo dogu” baiño. Ezta: “Goaz **Gernikara**”, “**Gernikara** goaz” baiño. Ezta: “Jango dogu **iruretan**”, “**iruretan** jango dogu” baiño. Ezta: “Dago **mendi-mendian**”, “**mendi-mendian** dago” baiño. Eta abar. Gaztelera bestetara, itzulietara izango da: “Hablaremos en **euskera**”, “vamos a **Gernika**”, “comeremos a **las tres**”, “está en **pleno monte**”.

Gaur-egun edozein edate edo jatetxetan irakur daitezke onango esakunak: “Hay caldo”, “Salda dago” esatea ez da euskera, berbak euskerazkoak izan arren. Umetan euskera ikasi eta egin dabenak era onetara esango dabe: “Saldea (saldia, saldie) **badago**”. Ez dabe “esne dago”, “ardau dago” esango, “esnea (esnia, esnie) **badago**”, “ardaua **badago**” baiño. Euskerazko itzak bai, baiña euskal senik ez dago or. Ezin izan euskera orrexegaitik.

Au dala eta, ustez euskal idazle izeneko askoren lanak erdera geiago dira euskera baiño, euskal senik bertan agiri ez dalako. Euskera jatorra ez dabe berbak eta euskera jakiteak soilik egiten. Euskal sena edo euskaltasuna ezin bestekoa da euskera izateko. Eta au ez da erreza askoren-

tzat. Bizi be, euskaldunok zoritxarrez –bai zoritxarrez!– erdal itxaso zabal-zabaleko ur aundietan belarri eta begietaraiño murgildurik bizi gara, eta gaztelaren eta beste erdera batzuen eragiña nai-ta-naiezkoa da orrexegaitik gure idazkuntan.

Au dala eta, aldizkarietako lan askok niri “zotiña” ekarten daste igarri barik (neure lantxook be zoritxarrez -bai, zoritxarrez emen be!- beste batzuei “zotiña” ekarriko edo “eztul” eragingo dautse ziur-asko).

Euskal sena edo “belarria” geureganatzeko aparte-aparteko zer-ikusia daukan arazoa galdegaiarena da. Galdegai zer dan eta berau zuzen erabilteko zer egin bear dan jakitea. Garrantzi itzelezko jakinkizuna.

Maixu aundi batzuk galdegaiari gaztelera “elemento inquirido” deritxoe. Olantxe Azkuek. Manuel Lekuona irakasleak, barriz, “concepto primordial”. Beste maixu batzuk beste era batera. Aspaldion “galdegai” izena onartu dan ezkerro, nik izen auxe darabilket lantxo onetan eta urrengo etorriko diranetan.

Beroren kondaira edo historia-apurra aitatzea ez litzateke alperrik etorriko bearbada. Jakingai au landu eta bertan sakondu azkenengo eun urtez onantza egin dalakotan nago. Amazortzigarren gizaldiko idazle aundiak Mogelek, Añibarrok, Prai Bartolomek... –jaramon txikia egin eutsuen jakingari oni. Onezaz konturatzeko, areek idatzi ebezan lanak irakurri baiño ez daukagu, gaur “klasikoak” deritxenak, eta areen euskerak gure “belarrietan” “aginka” egiten dauala artez oartuko gara.

Iparraldeko idazleak be ez dira erduzkoak arlo onetan.

Galdegaiaren azterketa zorrotzen eta zabalen arrotu eta burutu egin dauan maixua Seber Altube izan zan, “Erderismos” izeneko liburuan batez be. Arrezkerro landu eta garatu izan da ikas eta jakingai au.

Gaiaren aria artu aurretik, itzaurre edo aurreitz labur-labur bat egitea izan da nire asmoa. Baiña, ara: idazten asi eta beingo baten edo begi-itxi-edegi baten idatzi dot dana, ixuriari “galgarik” imiñi бага. Idatzi dodana barrero irakurri eta “Ene!”, esan dautsat neure buruari: “Guzti au irakurleren bati ondo letorkioke bearbada”, eta dagoan-dagoanean aldizkariaren zuzendariari bialtzea erabagi dot, argitaratu gura izango baleu edo.

Orixe jazoten da batzuetan: “iturria” “bor-bor”ka euki, eta urrengoan, ostera, ganorazko berba bi edo iru burura ekarteko, garaunak “estutu” eta “urtu” egin bear.

Guzti au dala eta, lantxo onetan arildu gura neban gaia urrengo lantxorako izten dot, eta orduantxe emongo dodaz galdegaiari eta beronen erallerari buruzko argibideak.

AGIRREGABIRIA

EUSKEREAREN EGOEREA BAKION - ETORKIZUNARI BEGIRA?

Gure errian euskereak gaur egun dauan indarra eta osasunaren barri jakiteko gizarte bizitzako arlo guztietara jo bear dogu eta bertan dauan garapena neurtu.

Aurreko urteetan egon dan bilakaereari begiratu bear deusogu. Arlo batzuetan aurrera egin doguna argi dago, arean da, euskerearen ezagupenari (zenbatek euskeraz egiten dakien) jagokonean. Irakaskuntzako D eta B ereduiei esker, ain zuzen.

Udalean, oso maila ezbardinetan izan arren, azken urteotan euskera idatzia be erabilten asi gara. Udal barruko izkuntza normalizazinarako aurrera oinkada garrantzitsuak eginez.

Badirudi leen baino euskera geiago erabilten dala.

Jendearen arteko euskerazko artuemonek, barriz, beera-kada itzela egin dabe. Euskerearen galtzea ez da Bakion lotu. Oraintsu artean, Bakioko erritar euren arteko artuemonetarako euskera utsa erabili izan badabe be, daborduko gazte eta umeak alkarregaz erderaz egiten asi dira. Dendentan, tabernetan, ..erderaz. Ainbat egoeratan, baina, erritar euskaldunak erderaz egin bearrean dagoz (osagilegaz, esaterako) eta ezinezkoa jake normaltasun osoan euskeraz bizitea.

Euskerearen galdubide onetan, nagusienak dira geien, eta ia bakarrak, euskerea erabilterakoan. Euskerearen **igorpena edo transmisinoa eten egin da**. Neurriak artu ezean, noizonoiz izkuntza bera ez da belaunaldi batengandik bestearengana igorriko.

Gaur egun ume askok ez dabe etxean euskera ikasi edota egiten. Ez dabe euskera entzuten, eskolan baino. Urteak joan aalean, euskerearen erabilerea jaisten doa eta ondorioz, euskeraz egiterakoan erreztasuna galduten dabe. Berba egiteko erreztasuna galdu ezker, euskeraz berba egiteko interesa galduten dabe eta bertan beera itzi egingo dabe. Gatxatxa izango da orrelan euskerea birreskuratutea.

Bakion euskerearen erabilereari buruzko neurketea egitea bearrezkoa da. Arean da, azterketa soziolinguistikoz zeatza egin bear dogu. Alik eta zabalena egin be. Askoren ustearen aurka, erabilera urria dala eta, izkuntzea galduteko aginean dagoala agertuko deusku orrek. Bai berbadunen kopuruan bai oneek egiten daben euskera kalitatean. Ara:

* Eskolako ekintzetatik at, 5 eta 14 urte bitarteko umeen artean asko be asko jaisten da erabilerea. Uts izan artean. Baita eskolan bertan jolastorduetan be. Gero eta jokera aundiagoa dabe erderaz bakarrik egitera. Irakasle eta monitorean kontrolpean ez dagozanetan erderara jotzen dabe, geien-geienik.

* 15 eta 21 urte bitartekoen jarrera guztiz erdalduna da. Euren artean ez dabe euskerarik bape egiten. Ez eta egiteko ardurarik be.

* 22tik 30 urtera bitartekoen jokaerea negargarria da. Asko, aita-ama gazteak dira. Naiz eta euren ume txikiei eus-

keraz berba bakanen batzuk egin, euren arteko eta lagunarteko berbaldietan erderaz egiten dabe, ia %100ean. Zeresanik ez ezkondukoen artean...

* 31tik 40ra bitartekoak antzerakoak dira. 35 urtetik gorakoen artean "naaste" geiago egiten dabe. Bakan batzuen artean entzuten da euskera utsean dabilzala.

* 41 urtetik gora, zenbat eta adintsuagoak izan, are eta euskera geiago erabilten dabe. Emen euskera geiago entzuten da. Gizonezkoen artean. Andrazkoen artean, barriz, askoz be gitxiago. Oneetan, euskerearen erabilerea gitxiengitxienetan dago.

* 51 urtetik gora, orain dala 15 urte artean, entzuten zan euskerearen erabilera normalizatuagoa. Gaur egun, oster, gero eta gitxiago. Inguruak baldintzatuten dauz -erdaldunen, udatarren eraginez-, nogaz dagozan, berbetan euskerea ala erdere erabiliko dabe. Bertan be, gizonezkoek erabilten dabe euskera geiago, andrazkoek baino. Baina molto bien arteko aldea ez da aurrekoen arteko besteko andia, ez eta urrik emon be.

Beste aldetik, azken urteotan beintzat, euskereagazko ardurea -elduen artean be, batez be- moteldu eta lasutu egin da. Gaur egun adintsuek euskeraz egin arren, emendik amar urtera 30 eta 40 urte bitartekoek euskera gitxiago egingo dabenez, gaur erabilaten dabena baino askoz gitxiago erabiliz, urterik urtera jatsiko da erabilerea. Olan, apurka-apurka, il egingo da euskerea Bakion. Neurriak berealan artuten ez badira, beinik bein.

Au dala eta, erritarren sentsibilizazio eta kontzientziazioa bear-bearrezkoak suertatuten jakuz. Baina au be, ez da naikoa izango.

Euskerearen alde egiten diran aaleginak bearrezkoak dira. Arlo batzuetan aurrera egin badogu be, euskereak benetako normalkuntzea lortuteko bear dauazan bultzakada eta indarretik asago gagoz, oraindikarren.

Normalizazinoaren bideko inflexino-gunea gaintututeko bear beste bitarteko (dirua, bideak,...) eta, batez be, borondateari bear-bearrezko deritxet.

Bakion euskaldungoa nagusi izanda, oso baldintza baikorrek eta egokiek egon bearko leukee, gure izkuntzearen erabilerea eta zabalpena aurrera eroateko. Euskerearen gizarte erabilerea eta ezagupena parekatutea lortu bearko geunke, epe ertainera lortu be. Eta erabilera au bermatuteko neurriak artu bear doguz, gitxieneko maila ori lortu daikengun. Euskerearen aldeko euskaldunen zintzotasuna eta zindotasuna lortu bear doguz (sendiaren bidez, batez be), belaunaldirik belaunaldiko jarraipenari eusteko. Baina orretarako euskeraz egiteko baldintza egokiak, baikorrak, lagungarriagoak euki bear doguz, nai ta nai ez.

Onetan guzti onetan, Bakioko udalak zeresan aundia euki badauka. Alan egin beie!

Iniki MARTIARTU

IBILALDI EUSKALTZALEAK 1996-6-10

Nere gaurko azalmena agertzean, ez noa inungo ibilaldien izena aitatzera, zoritzarrez, neurri aundiago edo txikiagoan akatza bardiña dalako.

Ibilaldi oiek, zalantza barik, bearrezkoak ditugu lagunok, bañan oiek eratzek, ondo azterturik egitekoak dira, diru batzea bakarrik gogoan eduki gabe. Oien elburua, euskeraren berpiztuera da eta danok, gure izkuntzaren jabe egiñik, Euskalerrri osoan zabaltzea da gure eginkizuna.

Orduan, orrelako eginkizunetan, batez ere euskeraren jabe direnei, antolatzaileek, ibiltokian zear euskerazko iragarkiak jarritz, gure izkuntza erabilii bearra agertu bear jake, geu gera eredu emon eta bultzatu bear degunok, bide ortatik, euskeraren zaletasuna duten guztiak gure ondoren eramateko.

Ez legoke ori esan bearrik, bañan emen daukugu borroka irabazi bearra, gure artean, aserretu barik, ez kaleetan zear ondamenak eta erreketak egiñik.

Lotsagarria da benetan gure artean gertatzen zaiguna, gure alderdi abertzale izeneko guzietan. Kide askoren alde-

tik, euskeraren jabe izan arren, geien baten gazteleraz mintzatu bearra, bai gaztetxoan artean, eta lotsagarriagoa dana, zentzuna bear luketen elduen artean.

Guraso, irakasle, andereño eta baita eleiz gizon eta lekai-meak nola ez, onetan erantzukizun aundia dugu. Ez da naikoa, gaztetxoak ikastoletara, euskeraz ikastera bialtzea, orrez gain, gure izkuntzarentzat, maitasuan eta esker ona izan bear dogu eta argi eduki, Erri bezela irautea nai bade-gu, Euskeraz eginez, berau, gure Ama gorde bear degula.

Gure AMA Euskera alboratzea edo txarrago, baztertzea, uezama edo ama ordea erabiliz, ez da abertzale baten jok-era ez eta euskaltzalearena ere. Auxe degu borroka, biguñe-na eta errez irabaziko gendukena eta zoritxarrez, gure zabarkeriagaitik, zailena gertatzen zaiguna.

Ekin daigogun bada maldazgora, euskera garaille urten dadin, benetako Ibilaldi euskerazaleak egiñik.

Agur bada eta mesedez esandakoak gogoan artu.

ARTOLOZABAL ILARI

EUSKAL-ASTEA AURTEN

Euskerazaintzak eta Euskerazaleak alkartuta, aurtan Santi Onaindia aitari omenaldia egitea erebagi dogu.

Ori dala-ta, joan diran urteetan Eskolapiotarren ikastetxean egiten izan dan eta Euskerazaleak eratuten izan dab-
en Euskal-Astea aurtan Zornotza-Amorebieta'ko Uda-Etxearen aretoan izango da, egitaraua auxe dala:

Urrillaren 16'an: Aita Santi Olerkaria (Jose M.ª San Sebastian "Latxaga")

Urrillaren 17'an: Aita Santi'ren idaz-lanak (Julen Urkiza)

Urrillaren 18'an: Aita Santi ta Euskalerrria (Luis Baraiazarra)

Oarra: Itzaldiak Udaletxeko Kultur-Aretoan eta arratsaldeko 8'retan izango dira.

Urrillaren 19'an, eguerdiko 12'etan, Larra'ko Lekaide-etxearen ondoan, Aita Santi'ren irudia ipiñikko da: txistulariak, dantzariak, bertsolariak, bere olerki bat...

Irudiaren aurkezpena egiteko itzalditxu bat egingo dau Olazar'tar Martin EUSKERAZAINTZA'ren len-dakariak.

Amaitzeko, lagun-arteko bazkaria.

EUSKERAZALEAK

B IZKAITARRAI B IZKAIERAZ

MIKEL ZARATEREN ALEGIAK

Ondokoan dakartsueguzan alegi biak Mikel Zarate Bizkaiko euskal idazleak eginak dira. Bere IPUIÑ AN-TZEKO ALEGI MINGOTSAK (1975) liburuan argitaratu ebazan.

Zer da, baina, ALEGIA?

Dagozanetarik literatura moeta bat da. Zaar-zaarra. Antxina-antxinakoek (Grezian) sarri be sarri gogoz erabili. Alegi zaarretan, abereek artuten dabe esku, bai ekinzetan bai alkarrizketetan. Eta azkenean mezua edo irakatsi morala dakarre. Arealan da, ipuin antzeko orreen bidez entzuleari zein irakurleari zeozer esan eta irakatsi gura jako.

Mikel Zarateren alegi mingotsak ez dira bakarrik alegi utsak, ipuin edo ipuin antzekoak be badira izan. Idazleak alegien munduan oiezlako bidea aurkitu eban. Barruko ardurak eta burukominak itzelezko irudimen biaziaz ustu ebazan. Euskal literaturan alegiak urri izan badira, Mikelek utsune ori betetea gura izan eban.

Aurrean aitatu dogun lez, alegiak elburu didaktikoa dauka, au da, edespenearen amaieran ondorioa edo mezua ekartea. Mikelek, baina, irakaspen barik idatzi ebazan bere alegiak, irudimendun irakurleak berak berea jarri egoten. aurki. Irakurleak, adi-adi irakurri ostean, atara bear dauz ondorioak.

Alegietan. arizaleak, oi dan lez, abereak izaten dira. Abereok gizakien lekuan agertuten dira, au da, gizaki balitzaz lez. Mikelek onetan barrikuntzak dakarskuz. Alegiotan gure sasoi eta inguruko abereak badakarskuz be, gauzak, makinak, tresnak eta, eurrez badarabilz. Arizaleek euren artean egiten dabe berba, nor biurtuta dagoz eta. Au dala eta, euren arteko alkarizketak bizi-biziaz dira eta ondorioz, edeslearen betebearra ia ez da asmatuten. Ez ei da bearrezkoa.

Mikelen alegiak egoera sozial eta politikoaren salakuntza dira askotan. Diktadurapean idatzita dagoz eta sinbologia eta irudimen zabal erabiltera beartuta egon zan, bere idazlanak, oraindikarren, onduz. Aor, bada, adibide bi!

EKINAREN IRUZURRA

Urtero erosten dau kotxea Txemak. Izan ere, kilometro asko egin bearra izaten dau autoan egunero bi ajantzetan.

Urtero erosten dau kotxe barri bat, eta kolore bardinekoa beti: zuria.

Aurten ere erosi dau. Baina erdi zorabioturik erabili dabe bere adiskide batzuk.

Etorri da bere errira, arro-arro, kotxe zuri barri dizdiz tsuagaz, ta bedeinkatzera eroan dau eleiza alderantza.

Aurten baltza erosi dozu, e! Zer, ba? Oiturak aldatu? Baltza baino... —esan deutso irribarrez abadeak.

—Baltza? Ez, orixe! Ez dot oiturarik aldatzen nik.

—Ba..., oker ez banago, baltza da au.

—Beti brometako gogoa?

—Ez. Egia da.

Bedeinkatu ondoren, tabernara joan dira Txema ta abadea, zerbait edatera.

—Baltza aurten, e! —esaten deutso adiskide batek.

—Baltz-baltza ganera —beste batek.

—Zuria ta zuria ibili zara beti ta, ondo egin dozu kolorea aldatzeaz. Oso polita da ori ere izan baina, gorria edo politagoa izango zan —tabernako ugazaba-andreak.

—Zoratuta zagoze gaur guztiok ala? Zuria erosi dot aurten ere, zuria! —Txemak, erdi asarraturik.

—Benetan ez dozu ori esango baina! —taberna ondoko garajetik etorri dan mekaniku batek.

—Bete basuak, Mari...

Etxera eldu danean, auzoko Krispin etorri jako kotxe barria ikustera.

—Polita benetan! Baina zergaitik baltza oraingoan?

—Zu ere adarra joten, Krispin?

—Adarra joten? Ez al da baltza?

Etxera sartu da Txema arineketan, ta onen aurpegia ikusirik ikaratu egin da emaztea.

—Zer? Ondo zagoz?

—Bai. Zer, ba?

—Ez dozu ekarri kotxe barria ala?

—Bai.

—Zuria?

—Zuria edo baltza, or dago. Joan ta ikusi.

Ekinaren iruzurra. Giza-nortasuneko gaia jorratuten dau berton Mikelek. Gaur egun, egunean egunean, publizitatean, edabideetan, arlo politikoan,... argi be garbi dakusaguna. Istorian zear. gure gizaldi onetako Goebbels nazi germaniarra izan zan ekinaren iruzurraren jaun ta jabe. Errege!

Zenbat bider, esaten deuskuezan gauzak, bein ta barriro esan eta guzur galanta badira be, ekinaren ekinez edo guk geuk entzunaren entzunez, sinistu egiten doguzanak. Bai, bete-betean sinistu be! Politiko askoren irudia jatort burura. Berba ta berba, esaten dabena, berba utsak izanda, geuri jaurtiten. Ea noizonoiz amua irunsten dogun!...

MENDITZAR ETA MENDITXU

—Kendu zaitez nire ondotik, txikiagotu egiten nozu ta —esan eutson asarrez Menditzarrak Menditxuari.

– Kendu zaitez zeu nire ondotik, aundiatgotu naiten -
erantzun eutson asarrez Menditxuk Menditzarrari.
Ez batak ez besteak, ez eben zirkinik egin.

* * *

Onetan arazo politikoa agertuten da. Menditzar eta Menditxuk, batak besteari kalte egiten deutsoe baina batek be ez dau amore emoten.

Arazo politikoak Euskalerrian gori-gori egozan. Gaur ez gitxiago. Eta euskaldun guztien arteko alkartuteko bearrizana argi be argi ikusten eban Mikelek. Bat egitearen bearra, gauzak, Erri lez, aurrera eroateko adierazo gura euskun. Alegi onen bitartez alkartzetik- ez au berau salatu gura izan eban. Ez dau esango inork alegi onek gaurkota- sunik ez daukanik, ezta?

Iniaki MARTIARTU

BERBALAPIKOA

moeta = eredu, genero.
esku artu = parte artu.
arean da = au da.
mingots = garratz, samin.
oiezlako = ezoiko, egundoko.
irudimen = gauzak buruan asmatuteko erreztasun eta gaitasuna.
urri = gitxi-gitxi.
edespen = kontakizun.
arizale = pertsonaia.
nor biurtu = pertsonifikatu.
edesle = narratzaile.
ondu = obetu.
iruzur = amarru, marro, ziri (ederra sartu deutso).
zorabiotu = burua naastu, burutik eragin.
jorratu = erabili, ukutu.
edabide = komunikabide, albistebide.
dakusagu = ikusten dogu.
irudi = antza, itxura.
zirkin egin = mobidu.
amore emon = besteari bide egin.

DEIA (SORTU ZANEAN)

Eguneroko barrilaria
jatorku Euskalerrira,
bere izena zabal zabalik
dago errira begira;
jendeak berriz entzun dau Deia
asmo zuzenen argira,
Euskalerriko albistaria
etorri gure bizira.

Egia eta zuzentasuna
bear ditu gure erriak,
enda bezela beregan ditu
lege-zarraren bidiak;
Deiak karraziz ausiko ditu
burdiña bai-ta arriak
argi onenak artu dagizan
Euskalerriko jendiak.

Euskaldun Deia euskaldunentzat
euskal etxean jaioa,
erritar semeek erriarentzat
garraziz aterakoa;
geuria da-ta, geuria da-ta,
geu geran bezelakoa,
gure ardurak ekarrikoitu
gatz onez ondutakoa.

Deia ta Deia entzungo dogu
laster asita gurean,
ama bezela deika jatorku
euskaldun lur zabalean;
Euskalerriko esnatzailea
izan bear dau kalean,
egizale dan euskaldun oro
zuzenduteko bidean.

Gizonak, beti, gauza bi daukaz
gorputza eta gogoa,
alderdi biok alikatzeko
dauka barruan asmoa;
gorputza egiz, gogoa egiz,
gizon Euskalerrikoa
euskaldun egiz bizi denentzat
au da lege-zarrekoa.

PAULIN

ERRIOXA'ra IBILLALDIA EUSKERAZAINTZA'rekin Irailaren 21'ean

OARRA

Ibillaldi onek elburu bi daukaz:

BAT: Gure kristiñau-sinismenaren antxiñako oiñatzak ezagutu.
San Millan sinismenaren aldetik iturria izan da Euskalerrian.
Ez dago orrelako itzaltasuna daukan beste etxerik.

BI: Euskera idatziaren iturriak ikusi Errioxa'n.
Euskeraz idatzitako aurrerengo itzak San Millan'en idatziak dira (992).

EUSKERAZAINTZA'k zuzentzen dau ibillaldi au euskerearen Erri-Akademi dalako.

ZELAN JOAN:

Ez dogu uste Bilbao'tik autobus bat beteteko beste batuko garanik. Orregaitik geure berebilletan joango gara eta an alkartuko gara Gipuzkoa'tik doan autobus'ekoakaz eta arabarrakaz.

IBILLALDIAREN ORDUAK:

9,00: Urten.

11,30: Yuso edo beko San Millan'en mezea.

12,15: Beko San Millan ikusi.

Suso edo goiko San Millan'en Naparroa'ko antxiñako erregen alde errespontsoa.

14,00: Senitarteko bazkaria: BADARAN "Comercio jatetxea"n (lursagarrak lukainkeagaz eta arku-mearen saiatz erreak, Bertsolariak lagun.

16,00: Mañas lekaide-etxea ikertu eta oroigarriak erosi.

(Bizkai'ko Jaunaren alabeak dauan arpegiaren edertasuan ezagutu).

ORDAINTZEKO:

Arduraduna: Olazar'tar Martin. Tel.: 674 11 38 edo 674 01 23. Mungia.

Epearen azkena: Uztaillaren 31.

Ordaintzekoa: 1.800 pezeta. Bide-saria, berebildunagaz berbatu.

ZER aldizkariak eta EUSKERAZALEAK ALKARTEA'K ba-dauke Bilbao inguruan urteko arpi-detza eskuratzeko erea. Etxerik etxe joaten da kobratzaillea. Baiña gauzea ez da ain erreza errietan. Orregaitik eskari au egiten dautzuegu: Bialdu eiguzue txartel edo txeke bat. EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren izena ipiñi ta 2.000 pezeta dirala idatzita. Txartel ori sartu karta-azal baten eta gainean zuzenbidea ipiñi: EUSKERAZALEAK ALKARTEA.

Colon de Larreategi, 14, 2º, eskoia. 48001 BILBAO.

Eskerrik asko urtero zintzo-zintzo ordaintzen dozuen guztioi.

EUSKAL AZTARNAK

VII.- ITXAS-ERTZEKO KAIAK

BURDIGALA

—Zer zan Burdigala?

—Novempopulania'ko Uri nagusia (Metropolis) Eauze izan arren, benetako Metropolis, bai ipar-alderuntz Loira ibaiararte eta bai ego-alderuntz Pirene-mendararte, Burdigala zan. Eta nagusitasun ori bi alde auetatik artzen du: Narbona'tik datorkion bide zabalarek bat, eta itxas-ertzak, Garona ibaitik aurrera, ematen diona, bigarrena.

—Orduan, antxiñako Burdigala, oraingo Burdeos degu.

—Burdeos'etik beera or dago, Adur ibaiean, Baiona, garai artako Lapurdum, Erroma'ko gudarostearen egoitza. Onek artzen zuan Burdeos'en sortutako mogimentuaren lenengo olatua. Onen inguruan zeuden Miarritze eta Getari (emen topa dituzte erromatarren salazoi eta eskabexelantegiak); Loitzun eta Endaia, Asturiaga ere bai Bidasoa ibaieren irteeran; andik Pasai eta Donosti; berriro Getari; Deva (Tritium Tuboricum), Artibai-Ondarru, Lea-Lekeitio, Oka-Gernika-Forua... eta azkenik Nervion-Bilbao-Flaviobriga. Andik aurrera Kastro-Urdiales eta abar.

—Erri guzti oietan daude erromatarren aztarnak?

— Bai; Deba'n ez.

Baña, Pomponio Mela idazleak onela dio (bere De Situ Orbis Lib. III Cap. Y): "Deva Tritium Tuboricum attingit" = "Deva ibaiak Tritium Tuboricum ikutzen du"... Idazle guziek esaten dute Tritium ori Astigarribia'n zegoela; zergaitik an dagoen ez du iñork agertzen. An ez dago meatzik (ez zillarrik ez burnirik); an ez dago ura besterik. Ura ugari. Deva ibaiak ur ura ikutzen du, iturburu izugarria bertara datorkiolako eta iturburu ori da Deva ibaia aitatzearen arrazoia eta zergatia. Ez dago besterik.




—Eta, zer da Tritium (Trizium irakurtzen da) Tuboricum ori?

—Trizi, Itzir eta um ori, a = Itziar; Tuboricum = Iturburu'ko da; biak alkatuta, Itziar Iturburu'ko. Iturburu ori Itziar'en dago, Astigarribia-aurrean. Ura bearrezkoa zuten erromatarrek bai gudarientzako eta bai barkuentzako. Barkuak bertaraño sartzen ziran eta iturburu ibaira bertara dator. Ura ugari barkutik bertatik artzeko eran. Onegatik pasatzen zan 34'garren Iruña'rako Bideak bazun "geldiune" bat, Iturissa edo Turissa, oraindik orain Iturrizar izenekin ezagutzen zan erromatarren iturria. Deva ibaia Iturburuak ere merezi zuen orrelako aipamen bat.

ASTURIAGA

—Zer da Asturiaga?

—Ondarribi'ko Iger maturrean dagoen berezko kaia da Asturiaga. An dago ondoratuta erromatarren barku bat burni-meatzetz beteta eta andik atera dituzte zenbait zeramika-ontzi, urpeko igarizaleak, Kristo ondorengo I eundikoak. Oietako batek aurkitu zuen ur-azpian amazapi metrora, 1961'garren urtean... An bertan, lego-



KONDAIRA




rean, barkuetan josteko Minerva, Marte, Elios-Eguzki eta Isis-Illargiren brontzezko ezaugarriak, aurkitu dituzte. Asturiaga'k gaur eguneko "puerto refugio" baten itxura du.

– Eta Irun'go EI Juncal zer da?
 – Bidasoa'n (Dearso-bidea'n) aurrera joanda zegoen kaia da EI Juncal; Irun'go eliza dagoen tokia; eliza onen aurreko alde osorik dago orduko materialez beteta. Ingumari guzti ura oso ezaguna zan Kristo jaio aurretik, eta izen auek zituen: Oiaso(n), Oiarso(n) eta Oearso. Ortxe dago Oiartzun. Egunero ari dira erromatearren garaiko erreus berriak sortzen. Oearso izenak gauza auek biltzen ditu: Asturiaga, Irun, Santa Elena eta Arditurri.

– Zer zan Santa Elena edo Xantalen?
 – Gaur eguneko ermitatxo batean, orduko illerria. 1972'an I. Barandiaran'ek egindako aztarnetatik, au atera zuen: ermitak izan ditun aldaketak. Lenengo izan da Erromatarren errautsezko ilerri bat; ondoren illerri orren inguruan jaso zuten lau aldetako egitura bat; elizatxo baten antzera ere erabili zuten toki ura; azkenik, gaur eguneko ermitatxo. Illerrian aurkitutako errautsen ontziak, 106 dira (eun da sei), bat ezik; au, kristalezkoa da.

– Noizkoak dira ontzi oiek?
 – Kristo jaio ondorengo 75'garren urtetik 125'ra bitartekoak. Urte oietatik aurrera, gorpuk luerperatzekoa zan oitura berria. "Carta Arqueologica de Guipuzcoa (J. Altuna) 1982"n, ermitaren zatiak erakutsi ondoren, gauz auek aurkitzen ditu bere barruan: zeramikak, metal-zatiak, urrezko belarritakoa, erromatarren eta erdi-aroko diruak, ezurrezko



orratsak, kristalezko ontzi eta zatiak, gizakien errautsak. I-IV'garren gizaldikoak; baita Erdi-arokoak ere.

– Eta, Andrearriaga'ko arlosa?

– Irun'dik Oiartzun'erako mendiaren gallurrean antxen dago arlosa ori Andrearriaga ermitaren ondoan: Zaldun bat eta gizaki bat bere aurrean. Esaera bat du, ona: VABELTESO / NIS. Fita jakintsuak aldaketa au egiten dio: AEBELTESON. Orrela badu onek Akitania'ko AHERVELSTE aren antza. Aker Beltza dabil tartean...


Dana dala, antxen dago erromatarren garaiko illen arlosa ori. Andik beera, Oiartzun'era joko degu.

– Eta, Oiartzun'en daukagu Arditurri.

– Arditurri, erromatarren meatz-zulo. An egon ziran berreun urtez lareun gizaseme lanean, zillarra ateratzen. Joan dan eunkian topa zituzten garai artako 46 zearzulo edo galeri eta 82 putzu. Danen artean 18 kilometro beteko zituzten luzeroan... Barru aietan aurkitu dituzte zenbait gauza: erromatarren diruak, meatzetako mailluak, lurrezko krisalluak eta abar... Oraindik orain Compañía Asturiana de Minas ari izan da or lanean, meatzak ateratzen; baña, zillara (galena argentifera) erromatarrek agortu zuten.

– Orduan, Irun'go Xantalen, Bidasoa'ko Asturiaga, eta Oearso'ren izatearen arrazoia, Arditurriko meatzetan egongo zan...

– Baita, Bidasoa'ra Val de Erro'tik zetorren bidearena ere. Tarragona'tik Oiartzun'era bidea egin zuten erromatarrek. Zillar ori eramateko ez ba'zan, zertarako zan? Oiartzun'dik Tarragona'ra zuzenean eta andik itxasontzietan Erroma'ra. Orra biderik zuzenena. Beste bideak ziran luzeago eta arrisku geiegokoak. Zillar oien inguruan mundo oso bat zebillen erlauntzaren itxuran: Lareun langille, zillar oiek





zaintzeko ainbat gudari, garriorako bear zituzten gurdi eta zamari... Zer, ez? Egoitzak ugari Bidasoa inguru guztian...

– Eta, beste meatz-zulorik ez al dago Gipuzkoa'n?

– 1986'garren urteko "Aranzadiana n. 106" garrenean Mertxe Urteaga ari zaigu esaten aizkeneko sei urte auetan zenbat erromatarren aztarna aurkitu dituzten: Zubeltzu, Elatzeta, Altamira, Olaberri, eta Belbia Irun'en; Etxola-erreako ballara Ernani'n; Udala'ko meatz-aldea; Zerain eta Ataun... Ez ziran lo egon.

OKA-(GERNIKA)-FORUA

– Eta, Bizkaia'n zer?

– Erromatarren agerpenik sendoenak Oearso, Forua eta Flaviobriga dira. Iruetan daude meatzak agerpen oien arrazoi-biderik onena. Irurak dituzte portu bana eta legorrerako bideak. Forua aldean ez dira bide oiek ain garbi ikusten; asmatu egin bear; baña, bada bertan burni-errautsik ugari. Forua'ko ibaitik ezker-eskubi, or daude Marueleza gaztelua (Gaztiburu bere illerriarekin batera) eta Luno'ko kastroa ezkerrean, indoeuropatarren egoitzak. Auek errementari onak ziran eta izan zitekeen burni-lan auen aurreratzalleak ere.

– Bazuten erromatarrek beuren portua ere.

– Bai Foruan eta bai Mundaka'n; baita jainkoen aldarak eta ildakoen arlosak eta I-III gizaldiko beste aztarna geiago: 320 zeramika "terra sigillata" zati eta bidrio-zatirik ez da falta... Lenengo eunkitik bigarrenera sustraitu ziran Forua'n eta orretan Arditurri eta Forua bat datoz. Badu, erromatarren "foro"en antzeko aterpe aundi bat; etxeak, lau edo bost gelek bakoitza, guztiak jende berdiñeko egoitzak, beuren kale eta guzti. Forua izena berbera ere "Forum" izenarekin alkartzen dute jakintsuek.

– Oka ibaiean dago Mundaka.

– Baita Bermeo. Emen egon liteke Plinio'k esaten duen "Vesperis" tokia. Aurrerago daude Plentzia eta sopelana, Neron eta Adriano'ren (I eta II eunkia) diruekin... Eta Nervion ibaia. Bilbao zaarrean, Ribera kalean, aztarrikan egin

barik aurkitu dira Trajano eta Marco Aurelio'ren diruak (I eta II eunkikoak auek ere), Arditurri eta bere inguruko en garai. Bizia dabillega itsas-ertze osoan...

FLAVIOBRIGA

– Izena zelta da eta a'briga", zubi...

– Flavio, berriz, Erroma'ko enperadore bat. Bilbao'tik Trapaga'ko Ugarte auzora bazan portu bat Galindo errekan. Eta Triano'ko (Triano, Traiano da) meatzak jasotzen zituan... aurrerago Somorrostro; onek bere mollak, Muskiz'en... Inguru artan dago "El Cerrado de Ranes", il-erri zabala, erromatarrek erabillia eta gero Erdi-aroan ere bai. Flaviobriga Bilbao bera dala esan digute beti; orain, ordea, izen ori Castro Urdiales'eri dagokiola... Dana dala, or Bilbao eta Castro bitarte orretan egon dira beti izugarritzko burni-meatzak...

– Eta, "briga" zubia ba'da, nun du Castro'k zubi ori?

– Emendik Burdeos'era artu-emanak bazirala, an ondoratutako barkuak agertzen digu; beronen barruan aurkitu dituzte "sigillata hispanica Gragendorf 46" itxurazko zeramikak... Asturiaga, Bidasoako portuan, aurkitu degu beste ondoratutako bat burni-meatzek beteta... Flaviobriga erromatarren "colonia" maillan Vespasiano (64-79 K. ondoren) egunetan sortua dirudi... Ezaugarri auek, denbora berdiñak erakusten dizkigute: Jesus jaio aurreko eta ondorengo Oiartzun'go Arditurri zillar-meatzen garaiak. Bitartean, artzaiek beuren artaldeekin, mendietan zebiltzan, ballaretako erromatarren jokoari begiratzeke; negua eltzean, jeisten ziran beerago, an gertatzen ari zanari kasu geiegi egin gabe.

ARRINDA'TAR ANES



BAKE-BILLA

ZER Aldizkari onetan, 207 gn. zenbakian, Bake-Billa izen buru ber-beraz gogoan erabili genduzan oldozpen batzuek gure aberriari dagokion burujabetza, azkatasuna edo... ezarri egizue gura dozen zentzun-antzeko itza baiña meserez, euskeraz idatzitakoan, **independentzia** lako erderaka ez erabili.

Urteko azken egunak ziran ezkerero, oituzko itzaldian lendakari jaunak be egoera larriari buruz be ardurea agertu euskun.

Giro gogaikarri ta oldarkor baten, GAL-ETA arazoa ta aurreko Lege-aldiko agintati artean ainbeste eztabaida ta epaiketa izanik, Ajuria-Enea'ko Ituna batzarreratu zan. Zazpi ordutan jardun ta jardun ondoren, idarkeria gaitzetsi ta orgeratu zan zeregin guztia. Alderdi guztiak bat egiñik, ao batez, erabakia artu eben.

Burujabetza arazoa be jarri zan mai gaiñean azter-gai bezela, baiña orduan sortu ziran inguru-minguruak ta aldegi-tea.

Ba-dirudi bildurtzen garala burujabetza bezelako utzi-eziña dan eskubide bat aitatze'ko. Ara emen, gai oneri buruz, Europa Press'i eskainitako alkarriketa baten Ardanza jaunak galdera bateri emaniko erantzuna: "Nik uste dot normalizazio bide orretan aurrera-pausu aundiak eman doguzala azken bi billeretan. Eta naiz eta autodeterminazio itza ez aipatu,idea orren inguruko eztabaida sakonak izan doguz" (DEIA 1996 uztaila 8).

Gogoratu daigun, aitatutako aurreko idaz-lanean esaten genduan bezela lenengo. billera ortan asko eztabaidatu zala burujabetzari buruz, baiña azkenean espaiñar alderdiak eta batez be Mayor Oreja jaunak, argi ta garbi, esan eben burujabetza itza erabakian aipatzen ez dan ezkerero, ez dagola onartuta.

Beti bezela, emen gertatzen dana zera da: Laterri maillako auzi orokorren bat eztabaidakatzen danean, alderdi guztiak ados agertzen dira; baiña Euskadi'ri dagokion arazo berezi ta garrantziko bat sortu ezkerero orduan, noski, espaiñar alderdiak aurka jokatuko dabe.

Indarkeri-gatazka onek, azkenean, iuori baiño kalte geien Euskal-Erria'ri egiten dautso, ba abertzaleak, sakabanatzen gaitu-ta.

Euskotar eta batez bere abertzale artean, geiago dira alkartzen gaituen zio edo gauzak, aldentzen gaituenak baiño. Au dala-ta, leen aitatu dogun eragozpen edo sakabanatze ori gairitzeko, alkarrezko egitasmo bat asmatzeko alegindu barko geunke, gero abertzaletasunari dagokiozan arazoetan, jokabide bardiña erabiltzeko.

Elkan-i deritxon erakundea da, nire ustez, bide ortatik bere jokaera zuzendu dauna. Aukeratu daun elburua **"Euskal-Erria'ko alkarriketa ta erabakian oiñarrituta dagon bakea** lortzeko" da.

Joan dan Ekainaren 29' go egunean, dei bat egin eban Ibiltaldi-Agerkunde bat antolatzeko. Bilbo'ko La Casillan alkar-

tu ta Arenaleraño joan gintzazan 10.000 lagun gutxi gorabera ixillean ezetariko ikur-buru edo ezaupide barik. Txartel bat bakarrik aurretik au esanez: **"EUSKAL-ERRIAN BIDEZKO BAKE PROZESU BATERAKO"**.

Azkenean, Jonan Fernandez jaunak agerpen batzuek irakurri ta gero, oiuka ibilli barik, bakoitza bere aldetik joan giñan.

Ibiltaldi-Agerkunde giro oso onekoa. Alkartu gintzazan artean, euskera erdereka baiño geiago entzuten zan; billera ez zaratatsu, isiltu ta gora aundiakoa baiño. Orra or ereduze ta jarraigarri bide bat, al danik sarrien, pakearen billa joateko. Baita be gure politikariei lagundu ta bidea gertatzeko.

Epaillaren 3 gn. eguneko auteskundeak oraintsukoak diran ezkerero, ondiño danok daukagu gogoan zer jazo zan. Eusko ta katalandar abertzaletasunaren arerio amorratu aundienak irabazi ebezala. Euren asmoa benetan ta zintzo agertu eben: Jaurlaritza gogor bat lortu, Espaiña gogor bat egiteko. Eta itsumustean, lagun aundienak biurtu ziran: bai geuriak, bai katalanenak. Olako mirariak noz edo nozkoren baten ikusten dira.

PP'ren asmo ta irizpideak ez dira bat-batean aldatu, baiña noiz-nola jokatu ei-bear-dala-ta ara, alabearrez, noraiño etorri diran; eta guk abagunde on bat ikusirik, poz-arren gertatzen gara onuraren bat edo zeozer lortzeko.

Izan be, orain arte arerio adiskide-eziñak izan diranak, bere giza-legeak edo joka-bidea nabarmenki ondu dabe ta ori gauza pozgarria da.

Alderdi bat bakarrik guztietara egiteko al-izatea (eta ori jozoten da geiengo osoa daukanean) ez dakar gauza onik. Atsegin ez jakozan gaitetan, sarri askotan, gor ta itsu bezela aritzen dira eta ortik datoz ulert-eziña ta okerkeri guztiak.

Jarrera barri au gogozko, naita-naiezko edo iragankor izan, etengabeko ta irakaskor izan daiten, danok zintzo jokatut bear dogu. Ortarako alkarriketa bearrezkoa da, ta parte artzeko daukan eskubidea, ez jako iñori kendu bear.

Baten baiño geiagotan, entzun izan dogu ikarazale edo terroristakin ez dala ez arremanik ez itzegiterik izan bear, pisti-talde bat bezela ezeztu ta kitu.

Aitatu dogun irizpide au arabera, espaiñar batzuek, naiz eskubikoak naiz ezkerkoak izan, talde aundi bat osatzen dabe abertzale ertzarako amorrutuak bezela, beti eusko abertzaletasunaren aurka dagona, ta ori ez da argarria.

Indarkeria, zalantza barik, gaitzetsi bear da. Beraz, gu gara orretan geien arduratu bear garanok; ba olakoan norbaiteri baiño kalte aundiagoa guri egiten dusku-ta.

ETA-ERRI BATASUNA'ren inguruan, ukatu-eziñezkoa da abertzaletasun zintzo bat dagola. Burrukatu daigun ba, adoretz, indarkeria; baiña itzalgarria dan zeozer ba'dago, alkar-izketatzean mai gaiñean jartzea bearrezkoa da, bake-billa bidetik zuzenki joan gura ba'dogu.

IDIGORAS 'TAR JOSEBA ANDER

ga ri irten zitzaion >Jrrt-Luskeraren aldeko geingoa.
Ona, neri irten zaitana:

—62 egun igaro zaizkigu esan zenuena esan zenue-
nez gero.

- 62 eguneko epe ortan, egunero agertu da euskeraz-
ko eriotz-oar bat beño geiago.

—Guztira, 300 izen dire 62 egun oietan agertu diren
eriotz-oarrak. Eta 300 oar oietatik.

zanpatzen dabiltzela jakiteko. 36 zenbaki oiek kenduz
gero, au bait da ikerketak damaigun zitua:

El Batuaren alde 18 (AMAZORTZI) puntu.

EUSKERAREN alde 243 (BERREUN ETA BE-
RROGEI TA IRU).

Lategi'tar Bixente

USKERAZALEAK

Colon de Larreategi, 14 - 2.º dcha.
48001 BILBAO



Betidanik.

Itzau begiak une batez eta
begiratu zeure inguruari.

Eraikiñak, kaleak, aurtzaroan jolasten
zendueneko lekuak, ikastegia... Ainbat
eta ainbat gauza ez dira leengoak, ez da?
Garaiak aldatu egin dira. Ezin ezetz esan.
Aiekin batera, zuk oraindik atsegin
dozuzan gauza asko be desagertu egin dira.
Urbiltasuna, begikotasuna,
zuzeneko artu-emona... Orain egiozu so
antziñako sukursal orren argazkiari.
Eta konparatu BBK'ren egungo edozein
bulego ta sukursalekin.
Ez dira ain ezbarðiñak.
Azkenean, garrantzitsuenak
bere orretan diraelako.
Gauza batzuk oiñarrikoak dira eta on
ondo dakigu BBK'kook.
Garaietan zear aldatu egin gara. Jakiña.
Bahia leengo berberak gara.
Zuri laguntzeko. Eta zure alegiñaz
eta geureaz onurak itzultzeko.



BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa
EZ DAGO GEIAGO ESKINTZEN DAUANIK